



DYRBERG, Peter

Europar Batasuneko Herriaren Defendatzailearen bulegoko arduraduna
Bureau du Médiateur Européen
Parlement Européen
1, avenue du Président Robert Schuman
F-67001 Strasbourg
peter.dyrberg@surv.efta.be

BIBLID [1137-1951 (2000), 6; 23-28]

Hizkuntza aniztasuna Europar Batasunean eta bertako erakundeetan: aberastasuna, zailtasunak eta inplikazioak*

(Linguistic plurality in the European Union and in its institutions: wealth, difficulties and implications)

Eleaniztasuna Euskal Herritik kanpo ere ematen dela badakigu. Europar Batasunaren baitan, esaterako. Hasiera batean txingurri eta elefante baten kasuak alderatzen direla iruditu arren, naziozgaindiko erakundearen baitako hizkuntza gora-beherak funtsean gureen berdintsuak direla atzeman daiteke zuzenean Bruselatik etorri zitzaigun jaunaren hitzaldian.

La pluralidad lingüística no sólo tiene lugar en Euskal Herria; también se produce en la propia Unión Europea. Si bien en un principio la comparación entre ambas realidades puede parecer exagerada, la conferencia de quien vino expresamente desde Bruselas acredita que los problemas lingüísticos del ente supra-estatal son bien parecidos a los nuestros.

La pluralité linguistique n'existe pas seulement en Euskal Herria; elle existe également dans l'Union Européenne. Bien qu'à première vue la comparaison entre les deux réalités puisse paraître exagérée, la conférence de celui qui est venu expressément de Bruxelles confirme que les problèmes linguistiques de l'organisme sous-étatique ressemble beaucoup aux nôtres.

*Itzultzailea: Koro Garmendia Iartza.

Europak daukan aberastasunetako bat, kontinentean barna hizkuntza ugari mintzatzen direla da. Europar Batasuna osatzen duten 15 kide Estatuetan, 40 hizkuntza daude gutxienez. Horietako batzuk aski ezagunak, hala nola ingelesa, frantsesa, espainiera eta alemaniera; beste batzuk ez hainbeste: Eskandinavian mintzatzen den samia eta irlandar gaelikoa. Eta badira oso txikiak eta gehienontzat ezezagun direnak ere, sorbiera esaterako, Brandenburgoko eta Saxoniako Länder alemaniarretan 50.000 pertsona inguruk hitz egiten dutena. Hauekin guztiekin batera, dialekto pilo bat aurki ditzakegu. Ez zait "dialekto" hitza gehiegi gustatzen; badakit hizkuntzalaritza eztabaidak izan direla "hizkuntza" eta "dialekto" hitzen edukiari dagokionez. Noiz gaude "hizkuntza" baten eta noiz "dialekto" baten aurrean? Ez daukat eztabaida horretan sartzeko asmorik. Legegizon naizen aldetik, ez dut gogoko "dialekto" hitza, zerbait berez denetik eta izan beharko lukeenetik aldendu egin denaren inpresioa ematen baitit. Arauaren konnotazioak dauzka; alegia, bada arau bat —"hizkuntza"—, eta baita arau horren desbideraketa txiki bat ere —"dialektoa"—, eta, askotan, "hizkuntza" hitz egitea "dialektoa" egitea baino egokiagoa eta hobe delako dirudi. Adibidez, nire aberrian, Danimarkan, Kopenhagen hiriburutik etorritako jendeak dio Jutlandiakoek dialektoa hitz egiten dutela; inplizituki, kopenhagentarrek "benetako" daniarra hitz egiten dutela diote, eta, jutlandiarrek, aldiz, "benetako" daniararen bertsio narriatu bat egiten dutela. Baina ikuspuntu hau ez da zuzena. Dialekto jutlandiar guztiak zuzenean eta autonomiaz garatu dira Eskandinavian hitz egindako hizkuntza bikingo originaletik. Kopenhagengo hizkera bezain berezkoak dira. Beraz, "hizkuntza-dialekto" bereizketa honetan "dialektoak" deuseztatu egin beharko lirakeela esatean, gezurra esaten dela dirudi askotan. Legegizon gisa daukadan inpresioa ematen ari naiz betiere. Ez dut esan nahi hizkuntzalariek dialektoak deuseztatu nahi dituztenik; alderantziz, normalean beren esku dagoen guztia egin ohi dute horiek defendatzeko. Esan nahi dudana da gizarteak "dialekto" hitza erabiltzen duen moduak, maiz, bazterreratu egin beharko lirakeenaren ideia daukala dirudiela, eta jarrera honek mehatxu bat suposatzen du hizkuntzaren aberastasun eta aniztasunerako. Jarrera honek hizkuntzaz haratagoko beste xede batzuetarako erabiltzen du hizkuntza, hots, zirkulu aberatsetako nahiz eskola on eta goi karguetako "benetako" hizkuntza egiten ez dutenak baztertzeko. Horregatik, inor entzuten dudanean beste batek dialektoa mintzatzen duela esanez, alarma txiki bat pizten zait. Litekeena da eman egin nahi didan informazioa besterik ez izatea, baina, hala ere, hizkuntza aniztasunaren aurkako edo ezezeko jarrera ere isla dezake.

Hizkuntza aniztasunak bere ordainekoa ere baduenez, zenbait zailtasunekin batera elkarbizi

beharra dauka. Adibide batzuk ipiniko ditut jarraian, eta "hizkuntza, komunikatzeko bitarteko bat da" esaldian oinarrituz jorratuko dut gaia.

Hizkuntza, komunikatzeko bitarteko bat da. Askotan esan den eta inolako zalantzarik gabe zuzena dirudien esaldi horrek, hizkuntzaren eta hizkuntzen aniztasunaren hurbilketa arrazionala deituko nukeenera garamatza. Hizkuntza, beste helburu bat lortzeko bitartekoa da, hau da, gizakiok komunikatu eta elkarri ulertzeko. Hurbilketa instrumentalaz ere hitz egin daiteke; horrela, "bitartekoa/helburua" binomioarekin lotuta dauden zenbait kategoria hizkuntzari atxikitzen saiatzen naiz; helburua komunikatzea baldin bada, ona da hizkuntza argia izatea, komunikazioa areagotu egiten delako, eta asmoa komunikatzea baldin bada, onuragarria da hizkuntza zehatza izatea, hizlariak ahal duen informaziorik gehiena ahalik eta denborarik gutxienean emango duelako, eta, aldi berean, entzuleak informazio hori denbora mugatuan jasoko, beste gairen bati heldu ahal izango diotelarik. Horrela, hizlariak eta entzuleak, ahalik eta emateko gai diren informazio gehiena eman ahal izango diote elkarri.

Hein batean behintzat, guztiok daukagu hizkuntzarako atxikipen hau, eta, bereziki, eguneroko bizitzan denbora oso mugatuta daukatela somatzen dutenek, zio desberdinak medio: filosofikoak, profesionalak, edota, besterik gabe, urduria izatea; arrazoiek ez dute hala ere gehiegi axola. Kontua da jarrera hori egon badagoela, eta oso zabalduta gainera.

Hizkuntza, komunikatzeko bitarteko bat dela esan dugu, eta, neurri batean behintzat, gehienok egia dela uste dugu. Zer du esatekorik hizkuntzei buruz —pluralean— esaldi horretan sinesten duenak? Normalean, positiboa bailitzan pentsatzen dugu eleaniztasunaz, gure bizitzetarako aberasgarria balitz bezala. Nolanahi ere, eleaniztasun horrek berekin dakar hizlariak hizkuntza batean hitz egitea eta entzuleak deus ez ulertzea. Eta komunikazioa eten egiten da. Hori bere horretan ez da positiboegia, hizkuntza bere lehenengo funtzioa bete ezinik gelditu dela esan nahi baitu. Hizkuntzak —pluralean— hizkuntzaren —singularrean— oinarritzko esanahiaren aurka daudela dirudi. Hizlariak entzulearen hizkuntzan hitz egiteko daukan gaitasun eza, edo alderantzizkoa, itzulpen eta interpretazioaren bidez konpon daiteke, jakina, baina zeharkako komunikazioa izango da beti, eta pertsona bakar bat ezagutu dut zuzeneko komunikazioa baino zeharkakoa gustokoagoa zuena: diplomatiko bat. Gauzek horrela jarraituz gero, itultzea nahiz interpretatzea, jatorrizko komunikazioan jasotako informazioa prozesatzeko modu bat izango da; eta, esperientziak erakusten duenez, komunikazioak

“ Batzuetan harrituta uzten nau Europa hegoaldeko legelari komunitarioek Europa iparraldean gertatzen ari den eztabaida legalaren inguruan daukaten erabateko ezjakintasunak ”

zenbat eta prozesatze aldi desberdin gehiago igaro behar izan, jatorrizko komunikazioan jasotako orduan eta informazio gehiago galtzen da. Egoera hau konpontzeko bideetako bat, hizlariak entzulearen hizkuntza ikastea izan daiteke, edo alderantziz; horrela, komunikazioa bere hedadurarik zabalenera berritzuli dela pentsa daiteke. Baina neurri bat besterik ez da, hizlariak ez baitu bigarren hizkuntza horretan lehenengoan daukan erraztasun bera izango; beraz, itzulpenaren eta interpretazioaren bidez aritu beharrean, itzultze eta prozesatze prozesuak pertsonaren baitara igarotzen dira.

Hizkuntzen aniztasunak, hortaz, komunikazio eskasagoa izatera eraman gaitzake. Hala gertatu zait duela gutxi, Finlandiako lege ikerlari gazte batekin. Bere herrialdean Europar Komunitateko legeriari buruzko doktore tesi bat idaztea oso erraza dela esan zidan, honakoagatik: frantsesa jakinez gero, eta, beraz, legeriari buruz dauden testu frantsesak irakurtzeko gai izanik, erraz aurkez omen daitezke jasotako ezagutzak ikerketa berritzaile bat bailiran, Finlandian apenas dagoelako frantsesa egiten duenik. Beraz, hutsala omen agerian gelditzeko arriskua. Argi dago moralgabe eta arbuiagarria izango litzatekeela hirugarrenen ideiak besterik gabe plagiatzea. Baina gure kasuan funtsa ez da horrelako gauza bat egingo lukeen pertsona baten kualitate moral eza salatzea, baizik eta istorio horren bidez ikustea hizkuntza aniztasuna ondorio zientifikoak transmititu eta zabaltzeko oztopo izan daitekeela. Batzuetan harrituta uzten nau Europa hegoaldeko legelari komunitarioek Europa iparraldean gertatzen ari den eztabaida legalaren inguruan daukaten erabateko ezjakintasunak, eta, halaber, Europa iparraldeko legelariak adibidez Espainian

eta Italian gertatzen ari diren lege eztabaidei buruz daukatenak. Hizkuntza aniztasunak giza ezagutzak zabaltzea eragotz dezakeela azaltzen dute bi adibide hauek.

Komunitateko lege sisteman ere bada eleaniztasunarik. Hamabi hizkuntzatan daude itunak, ofizialak hamaika diren arren, irlandar gaelikoa ez baita hizkuntza ofizial bat, baina bai itunetakoa. Beraz, erakundeek Bruselan hartutako erabakiak hamaika hizkuntzatan egon ohi dira normalean, eta hizkuntza horietan guztietan benetakoak izango dira; alegia, hizkuntza bakoitzeko bertsioa legez baliozkoa izango dela. Komunitateko erakundeek hiritarren bizitza gobernatu eta arautzen duten erabaki ugari hartzen dituzte, eta hiritarrek hizkuntza desberdinak hitz egiten dituztenez, erabakiek hizkuntza desberdin horietan ere exisitu beharra daukate, noski. Ezin da hiritarrak bere hizkuntzan ez egotearen ondorioz ulertzen ez duen lege testu bat beteko duenik itxaro. Hizkuntza aniztasun honek badu eraginik zenbait lege kontutan, hala nola erabakiak hartzerakoan. Aztertu beharreko puntuetariko bat da ea erabaki batek, hamaika hizkuntzetan balioa izan dezan, hizkuntza horietan guztietan hartua izan beharra ote daukan. Honek benetako interes praktikoa dauka, erabakiak hartzeko prozeduran eragiten du-eta. Erabakiak hizkuntza horietan guztietan hartu behar baldin badira, orduan erabaki proposamenek ere hizkuntza horietan guztietan egon beharko dute; ondorioz, erabakia hartu baino lehen egin beharko da proposamenaren itzulpena, nahiz eta erabakia inoiz hartuko den aurrez jakiterik ez egon. Praktikan, posible da horrela bizitzea. Dena den, zailagoa izango litzateke negoziaketek dirauten bitartean edo/eta azken minutuan sortutako konpromisoen borradoreak ere erabakia hartu baino lehen itzultzea. Eleaniztasuna dela-eta itzuli beharrak, erabakiak hartzeko prozeduren efizientzia eta azkartasuna oztopa ditzake.

Eleaniztasunaren inguruko beste funtsezko kontu bat, erabakiak jada hartuta daudenean interpretatzeari dagokio. Erabaki legeletan, oro har, hitz abstraktuak egoten dira, eta, egoera zehatzei aplikatu baino lehen, interpretatu egin behar izaten dira. Hitzak sarritan orokor eta abstraktuak dira, eta beren benetako mugei buruzko zalantza piz dakiguke. Zein da, adibidez, "egoitza" hitzaren eduki zehatza? Hitz hau testuinguru legal askotan erabiltzen da, hala nola legedi fiskalean —pertsona bati egoitza daukan lekuan ezarriko zaio zerga—, prozesalean —defendatzaileak egoitza daukan lekuan egingo zaio zitazioa defentsari—, eta administraziokoan —jabeak egoitza daukan lekuan erregistratu behar du autoa—. Tira, denok ados egongo gara egoitza bat, norbait bizi den etxea dela esatearekin. Baina inork itsasuntzi batean bizitzea

“Luxemburgetako Europar Justizia Auzitegiak zenbait erabakitan adierazi duenez, Komunitateko egintzak interpretatzeko, hizkuntza bertsio guztiak alderatu behar dira



erabaki baldin badu, egoitza al da hori? Eta zer egin behar du batek 3 hilabetez leku batean bizi bada, 4 hilabetez beste batean, eta urteko azken 5 hilabeteetan hirugarren leku batean? Leku horiek guztiak egoitza kontsidera al ditzake, ala aldi bakoitzean aldatu egiten duela esan beharra dago? Leku guztietan ordaindu beharko al ditu zergak eta autoa erregistratu? Aplikatu baino lehen interpretatu egin beharreko hitzak ez dira gisa honetakoak bakarrik; eguneroko bizitzako hitzek ere eskatzen dute interpretaziorik. Adibidez, zer da garagardoa? Edari alkoholdu bat? Orduan, zer egin alkoholik gabeko garagardoarekin? Purutasun metodoren baten bidez prestatutako garagardo bat al da? Eta abar. Argi dagoena da hizkuntzak interpretazioaren beharra daukala. Eta testua hizkuntza bertsio gehiagotan dagoenean, zeina Komunitatearen kasua baiten, zein hizkuntzarako bertsioa izango da interpretatzeko oinarria?

Galdera hauen garrantzia txikiagotu egiten da, noski, hizkuntza bertsio guztiak berdinak direla esanez. Baina hori esatea bera ere arazo bat da, ordea; zeren eta nork menperatzen ditu hamaika hizkuntza, beren arteko berdintasuna finkatu ahal izateko? Utz dezagun hau alde batera. Interpretatzeko orduan hizkuntza desberdinen bertsioen artean oinarritzkoa zein den jakiteak garrantzi handia dauka. Desberdintasunak arrazoi askogatik sor daitezke. Horietako batzuk, ziurrenik, itzulpen akatsengatik baino ez dira sortu. Beste akats batzuren iturburua izan daiteke hitzek oinarritzko esanahi komun bat edukitzea, baina, zenbait hizkuntzatan, besteetan ez dauzkaten ñabardurak edukitzea. Hirugarren arrazoi bat izan daiteke erabilitako hitz legalaren mugak sistema legal batetik bestera

desberdinak izatea, ondorioz, testua desberdin agertzen delarik hitzari Komunitateko edukia legala ematen zaionean.

Luxemburgetako Europar Justizia Auzitegiak zenbait erabakitan adierazi duenez, Komunitateko egintzak interpretatzeko, hizkuntza bertsio guztiak alderatu behar dira. Justizia Auzitegiak behin eta berriro adierazi du bertsioen artean desadostasuna sortutakoan, interpretazioko beste elementuak hartu behar direla kontuan, hala nola interpretazioaren objektu den xedapenaren helburua eta testuingurua. Eta halaber adierazi du hizkuntza bertsioen bat besteetatik aldendu eta isolatuz gero, beste hizkuntza bertsioekin modu bateratu batean interpretatu beharko dela. Ondorio hauetara iristeko, Auzitegiak garrantzi berezia eman die hizkuntza guztien berdintasunari eta legea modu uniforme batean aplikatu beharrari, eta uko egin die "hizkuntza txiki" deituriko bertsioak kontuan ez hartzearen aldeko argudioei, hamar milioi portugaldarrek hitzegiten dutena, adibidez. Hizkuntzen berdintasunak ez ditu horrelako gauzak onartzen. Hortaz, testu eleanitzek interpretazio eleanitza behar dutela finkatu du Auzitegiak.

Auzitegiak emandako arrazoiek nahiko onak dirudite. Egintza bat bera Espainian modu batean eta Alemanian beste batean interpretatzerik balego, orduan, berdinak edo antzekoak diren gatazkak modu desberdinean ebatziko lirateke Espainian eta Alemanian. Eta ordenamendu legalak ezin du hori onartu, gatazka berdinek konponbide berdina behar dutela finkatzen baitu. Eta herrialde guztietan, Espainia eta Alemania barne, baliozkoa izango den interpretazio bat aurkitzeko, interpretatzeko orduan hizkuntza bertsio guztiak kontuan hartuko dituen bideak soilik dirudi zuzena.

Nolanahi ere, Auzitegiaren posizioa apur bat problematikoa da. Printzipioz, interpretazio eleanitz bat egiteko, interpretatzaile eleanitz bat behar da —zeintzuetariko gutxi batzuk bakarrik baitauden— eta ez elebakarreko interpretatzailea —zeintzuetariko asko baitauden, kide Estatuetan batik bat, non Komunitateko legea aplikatzen baiten—. Komunitateko arau gehienak ez dira Bruselan administratzen, baizik eta kide Estatuetako autoritate nazional, erregional edo lokaletan.

Hortaz, eta Auzitegiaren esanari jarraiki, kide Estatuetako epaile, administratzaile, abokatu eta gainerako hiritarrek hamaika hizkuntzetan interpretatu beharko lituzkete Komunitateko egintzak. Ezin zaie horrelakorik eskatu. Aski gogorra da legea hizkuntza bakar batean ezagutzea, eta erabat ezinezkoa hamaika hizkuntzetan interpretatzeko gai izatea. Honek



ondoko egoerara garamatza: Komunitateko legea aplikatu behar duen gehiengoak ez dauzka bere esku interpretatzeko elementu guztiak, ez baitu berea ez den beste hizkuntza bertsiorik ezagutzen. Praktikan, zera esan nahi du: zuetako inor abokatu batengana Komunitateko legearekin zerikusia daukan zerbaiti buruzko aholku eske joanez gero —hala nola zure nagusiaren kaudimengabezia kasuan soldata jasotzeko daukazun eskubideari buruz—, orduan abokatuak honako hau erantsi beharko lioke bere aholkuari: "testuen bertsio espainiarraren arabera ematen ari natzaizu aholku hau. Bertan behera geldi daiteke nik ezagutzen ez dudana beste hizkuntza bertsioen batekin alderatuz gero". Jakina, ez da oso lasaigarria hiritarrarentzat. Eleaniztasuna, bat-batean, ziurtasun legala murrizten duen zama bilakatu da; beraz, printzipioen gatazka bat dago Komunitateko legearen aplikazio uniformearen —testu eleanitza— ziurtasun legala hirukian. Gatazka hau egoera zehatz batean nola arin daitekeen ikusteak arazo legal konplexuetara eramango gintuzke, eta ez dugu orain aztertuko. Baina gogoan izan beharko dugu gatazka existitzen dela, eta eleaniztasunak bere prezioa daukala.

Azken adibide bat ipini nahiko nuke. Europarrek Batasuneko erakundeei idazteko eta erantzuna hizkuntza berean jasotzeko daukaten eskubideari buruzkoa da, Amsterdamgo Itunak konstituzionalizatu zuena. Zalantzagabea dirudi hiritarrek horrelako eskubide bat edukitzea. Baina eskubidearen norainokotasuna ikusi behar da. Eskubidea funtsezkoa izanik, eta Itunak eskubidearentzako inolako salbuespenik aurreikusten ez duenez, litekeena da inork pentsatzea eskubide horrek komunikazio idatzi guztiak barnebiltzen dituela. Baina zalantzak sortzen dira: zentzuzkoa ote da horrelako erantzun bat praktikan? Erakundeak, beren funtzionamendua dela-eta, zuzenbide pribatuko harreman pilo batean murgilduta daude, hala nola errenta kontratuetan, zerbitzu kontratuetan, ondasunen orniduran, etab. Horrelako kontratuak egin baino lehen, eskaintza publiko bat egin ohi da maiz. Pentsa daiteke ea horrelako ekintza bere lan hizkuntza ez ofizial batean egitea eragotzi beharko ote litzaiokeen dagokion autoritateari, hala nola ingelesez edo frantsesez. Nahiko luzeak izan daitezkeen eta maiz zehaztasun tekniko edo merkataritzako asko dauzkaten agiriok, edozein hizkuntza ofizialetan eskaintzera behartu behar al da dagokion autoritatea, edota agiriak lan hizkuntza ez ofizialekoren batean onartzeraz behartu behar dira oraingo kontratatzaileak nahiz potentzialak? Autoritateek —eta azken batean, zerga ordaintzaileek— ordaindu behar al dituzte itzulpen kostuak, ala dagokion kontratatzaileak izan behar du hizkuntza arazoak bere kabuz konpondu behar dituen? Eskaintza agiriak hizkuntza guztietara itzulita edukitzera behartu behar al dira zerbitzuak, hala nola kontratatzaile

greziar edo daniarrak, esperientziak erakusten duenean dokumentuek apaletan hautsa hartu baino ez dutela egiten?

Eleaniztasunak, beraz, prezio bat dauka; bai zentzu literalean, kostatu egiten delako, eta baita zentzu figuratiboan ere, giza bizitzako beste balore batzuri kontrajarrita egon daitekeelako, erabateko komunikazioari eta segurtasun legalari adibidez.

Inork galde dezake, ez foro honetan, baina bai besteren batean, ez ote litzatekeen eleaniztasunarekin behin betiko bukatu beharko. Pertsonalki, harrigarria eta burugabea iruditzen zait tankera horretako galdera bat, beste horrelakoak bezala: "ez al genuke emakumezko eta gizonezkoen generoen arteko desberdintasunarekin amaitu behar, eta horrela unisexak bakarri eduki?". Igande arratsalde batean, terrazan, beste egiteko interesgarriagorik ez edukitzean, denborapasan ibil daiteke horrelako kontuekin. Bizitza askoz ere errazagoa izango litzateke gu guztiok unisex bagina, ziur aski askoz ere hobeto ulertuko genioke elkarri, arropa berdina erabili ahal izango genuke, ez genuke genero berdintasunari buruzko arazorik izango, etab. Hala ere, eta nire ustez betiere, burugabea da. Eleaniztasuna, irauteko dago hemen, eta genuke deuseztatu beharko. Gizateriaren ondarearen zati da, eta, horrela izanik, indartu egin beharko genuke. Beste giza baloreak errespetatuz.

Nolanahi ere, kontu burugabe horren aldaera batzuek aurrera egiten dute batzuetan. Batasuneko hizkuntza eraentza aldatu egin beharko litzatekeela entzuten da Bruselan noizean behin; hau da, hizkuntzen kopurua murriztu egin beharko litzatekeela.

Zergatien artean, hauxe dago: Batasuneko erakundeen kostu administratiboaren zati handi bat itzulpen eta interpretaziora doa. Duela zenbait urtez geroztik, erakundeak beren kostu administratiboak mugatzeko presiopean ibili dira, eta Komunitateko Aurrekontuaren agintaritzaren jarrera, orain dela gutxira arte behintzat, printzipioz kostu administratiboaren gehikuntzarik ez baimentzearena izan da. Garai batean, 90. hamarkadaren erdialdean, Europar Parlamentuko aurrekontu batzordea Parlamentuko debateak gehiago ez itzultzea planteatzera ere iritsi zen. Aurrekontuaren ikuspuntutik, ulergarriak dirudite ideia horiek, ikusi egin beharko bailitzateke zenbat hiritar sentitzen diren debateak irakurtzera bultzatuta. Hala ere, arriskutsua da horrelako ideiak onartzea, eta, zorionez, bertan behera gelditu zen honakoa.

Beste zio bat: etorkizunean Batasuna zabaltzeko balitz, bere hizkuntza ofizialei besteren bat gehitzeko aukera legoke. Alderdi

ugaritatik aurreikus daiteke ez dela batere maneia garria izango 15-20 hizkuntza ofizialdun erakundeak edukitzea. Hedapenarekin batera, Batasuneko familia hizkuntzen kopurua ere handitu egingo litzateke; une honetan, ez dago hizkuntza eslaviarrik ofizialen artean. Areagotu egingo da hizkuntza konplexutasuna.

Kostuak onartzea onuragarria da, baina neurriak hartuz: agintari publikoek diru publikoa xahutzen dute, eta argi dago kostuak murrizten saiatu beharko luketela, baina agintari publiko modura dauzkaten eginbeharrak errespetatuz. Hiritarren zerbitzura egon beharko luketela esan ohi da, azken batean hauengandik baitorkie beren legitimazioa; orduan, hiritarraren hizkuntzan egon beharko lukete hiritarraren zerbitzura. Zaila da itzulpenen kostua murriztuz Batasuna hiritarrarengandik gertuago egotea. Arrotzak eta ez legitimoak bailiran hartuko dira hiritarren hizkuntzan mintzatzen ez diren agintariak, eta arrazoiarekin gainera. Beraz, ez litzateke hizkuntza ofizialen kopurua murriztu behar. Ez du axola Batasunari zenbat Estatu atxikitzen zaizkion; hiritarrek testuak irakurtzeko eta agintariekin beren hizkuntza propioan komunikatzeko aukera izan behar dute. Eleaniztasunak ez du diruagatik bertan behera gelditu behar. Arautu egin beharko litzateke noiz dagoen beste kontsiderazioekin kontrajarrita eta noiz merezi duen legearen babesa. Ponderazio batara eramango gintuzke. Baina ez dugu gaitzetsi behar